

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 260. alea - 2021eko martxo



AMAGOIA ARRIETA

“Lehia-kirolak espektatiba berrietara ireki eta bizitza aldatu dit”



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

GAZTARERAK
EUSKAL
OKELA

CAJAS DE VINO
DE GIJÓN
DEL PAÍS VALEO
EUSKO LABEL



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otarkeoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gaufan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behe - DEBA
Tel.: 943 19 22 63
www.atarideba.com



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

AURKIBIDEA

7

ALBISTEA

Olga de Dios
ilustratzaile eta idazlea
Debako Ipuin
Kontalariekin



9

ALBISTEA

Egitarau oparoa
Emakumeen
Nazioarteko Egunaren
inguruan



10

ELKARRIZKETA

Amagoia Arrietarekin
aritu gara, boccia
kirolaz, sariez, lehiaz,
bizitzaz...



13

KRONIKA

Zientzia Astea
Luzaron: guraso
zientzialariak umeei
tailerrak emanez



16

B. GAZTEA

Pride filmari buruzko
kritika; emakumearen
zapalkuntzaren
aurpegiak iruditan



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzaile@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
Euskararen Elkartea

LAGUNTZAILEAK



DEBako Udalak



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.





Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

Iraultza, feminista izango da edo ez da izango

Martxoak 8 bakoitzean, emakumeen arteko aliantza ospatzen dugu, konkistatuak izan diren eskubideak defendatzeko; konkistatuak, argi eta garbi utzi nahi dugu.

Izan ere, inork ez digu ezer oparitu, gure eskubideengatik borroka egin behar izan dugu. Gutako batzuoek eskubide horiekin jaiotzeko pribilegioa izan dugu gure aurretik borroka egin duten emakume guztiei esker. Mila esker.

Munduko emakume asko eta askoren batasunak garaipen handiak lortu izan ditu historian zehar gutako askorentzat. Gure aurretik emakume aktibista, sufragista eta sindikalista asko izan dira eta eurei esker lortu ditugu gaur egun ditugun eskubideak. Baina badakigu oraindik ez dela nahikoa; egiteko asko dugu eta borrokan jarraituko dugu.

Ahizpatasuna da gure arma eta elkartasunari esker aurrera goaz.

Gure identitatea askotarikoa da: antizak gara.

Buhameak, ijitoak, migratuak eta arrazializatuak gara.

Adin ezberdinetakoak gara, amonetatik bilobetara; eta lesbiana, trans, bisekual, inter, queer, heteroak... gara.

Jada gure artean ez daudenak gara: hil dituztenak eta presoak.

Denak gara.

Gaur, nahikoa dela oihu egin nahi dugu. Nahikoa da indarkeria matxistaz inguratutako munduan bizi behar izateaz. Nahikoa da gure orientazio edota identitate sexualagatik zapalduak izateaz. Nahikoa da genero bereizketaren ondoriozko soldata-arrakala errealitate bat izateaz, nahikoa da gutxietaz, eta nahikoa da lan esparruko abusu seksualerik.

Pandemiak gogor jo gaituen garai honetan, emakumeen egoera ez da hobetu. Bat-batean bonbilla piztu eta lehendik bagenekien arren, zaintzalanak zeinen garrantzitsuak diren ohar-tu gara. Hain zuzen ere, historikoki emakumeek bete izan dituzten zaintzalanak, inongo errekonozimendurik

gabe edota soldata iraingarrien truke. Zaintzak erdigunera!

Prekarietateak alderik alde zeharkatu ditu emakume adinduak, migranteak eta arrazializatuak, funtzio-aniztasuna dutenak edota normatibitatean sartzen ez direnak.

Urteetan irabazi ditugun pentsioak eskatzen ditugu!

Ez dago ilegala den emakumerik: nahikoa dela oihu egin nahi dugu.

Aske izan nahi dugu, beldurrik gabe bizirik, feministak, ausartak eta errebeldeak.

Borrokan jarraituko dugu.

Iraultza, feminista izango da edo ez da izango.

GORA BORROKA FEMINISTA.

Debako Talde Feminista



debarrak
MUNDUAN

atalean elkarrizketatzeko lagunik baduzu?
Etxekoren bat bestela?

HALA BADA...
kontaiguzu!



632 043 322



berriketan@zuhatza.com

STOP 5G!

Deban eta Itziarren ere 5Garen ezarpena atzeratzea eskatuko dugu

Debako Osasun Haziak taldeko kideok, Euskal Autonomia Erkidegoko 5Garen Luzamenduaren aldeko Koordinakundearen babespean, sinadura-bilketa abiarazi dugu Deban eta Itziarren Udalak 5G ezartzea atzeratu dezan eskatzeko (seguruak direla baieztatu arte). Laster mozioa aurkeztuko dugu Debako Udalean 5Garen luzamendua eska dezaten proposatuz.

Zerk mugiarazi gaitu?

-Arriskutsua izan liteke osasun eta ingurumenarentzat

Ez dago 5G segurua dela frogatzen duen txostenik, are gehiago, 3G eta 4G teknologiak osasun eta ingurumenarentzat kaltegarriak direla egiaztatzen duten hainbat ikerketa daude.

-Udalerrri eta autonomien eskumena murrizten du

Uhin hauek luzera motzekoak direnez (200 m-tik behin jarriko dituzte antenak), Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorraren Aurreproiektua onartzen bada, administrazio publikoek beharrezkoa den ikuskapena egin ahal izateko

antena horiei buruzko informazioa izatea eragotziko zaie. Ondorioz, inork ezingo du horiei buruzko informaziorik eskuratu.

-Nekazaritza eta gizarte ereduaren eraldaketa dakar, eta ingurumenaren ustiapen ez jasagarria

5G teknologia, 4.0 bertsioan, nekazaritza- eta abeltzaintza-industria intentsiboa garatzeko bidea izango da. Egungo nekazaritza ereduari amaiera emango dio, ekoizle txiki eta ertainak baztertu ditu eta, informazio guztia korporazio handiek kontrolatuko dutenez, elikaduraren subiranotasuna erabat galduko da.

Gizartean, arrakala digital, sozial eta generokoa areagotuko ditu eta ingurumena neurri pentsaezinean kaltetuko. Izan ere, orain dauden gailu guztiak suntsitu eta zabor bihurtuko dira, eta berriak egiteko mehatzeak ikaragarri ustiatuko. Aldi berean, denok ez dugu izango teknologia hori erosteko ahalmen ekonomikorik, beraz, balizko onurak ez dira gutxiontzat izango; kalteak, ordea, bai. Gainera, lanpostuak desagerraraziko ditu; hortaz, handitzen doan gizarte-



arrakala gaindiezin bilakatuko da.

Hori horrela, Europako herri askok 5Garen luzamendua eskatu dute. Euskal Herrian, berriz, orain arte Hendaiak, Elorriok eta Durangok eskatu dute eta 29 elkartek babestu.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi ez dagoela inolako eztabaida publikorik teknologia hori ezartzeko behar den milioi askoko inbertsio publikoari buruz.

Zuk ere eskaera babestu nahi baduzu Arkatza, Masillo, Euskalinpri, Maxi, Ieraenea, Sasoiko eta Burugorri daude sinatzeko orriak. Mila esker!

Osasun Haziak taldea

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

636 135 008
alain@taxideba.eu

www.taxideba.eu

MARIJE CASTRO IRIBARREN

MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

28 URTEKO ESPERIENTZIA

DEBA

Tel.: 677 557 615

ITXAS GAIN

Taberna

ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA

TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



Debarrak munduan

TXOMIN AZPEITIA

2011ko maiatzean abiatu zen Bangkokera (Thailandia) Txomin Azpeitia Badiola 36 urteko debarra. Baina aurretik, lehenik Itsas Zientzien ikasketak egin zituen Cadizen, akuikultura master bat Ganten (Belgika) ondoren, eta azkenik, bizitzak Bangkokera eraman zuen, ikertzaile bezala uribertsitatean lan egitera. Handik erantzun ditu *Berriketan-en* galderak.

Bangkoken bizi zara egun Txomin... Zergatik?

Bangkoken bizi naiz 2011tik, tartean urte bat Deban pasata. Bederatzi urte igaro dira eta bertako unibertsitate edo enpresetan aritu naiz lanean hasieratik.

Zerk eraman zintuen horra?

Nire arloan Euskal Herrian ez zegoen lan-eskaintzarik eta beka batekin etorri nintzen ikertzaile bezala lanera, bertako unibertsitate batera.

Zertan zabilta orain?

Akuikultura sektoreko enpresa batean egiten dut lan, bezeroei zerbitzu teknikoa ematen, beraien otarrainxka-haztegieta. Thailandia, Vietnam, India, Indonesia, Filipinak eta inguruko herrialdeetan ibiltzen gara gehienbat normalean, baina gaur egungo egoeran bidaiatzea ez da posible, horregatik Thailandian bakarrik egiten dugu lan.

Espero zenuen bezalakoa al da Thailandia? Zerk harritu zintuen?

Toki ezberdinetan bizitzeko aukera izan dut, unibertsitatean bertan mundu osoko jendearekin, Thaiandiako herri txiki batean, eta Bangkok ere bai. Kultura ezberdinak dituzte eta denak oso jatorrak dira kanpotarrek.

Gehienbat ezezkoarekin duten harremana da gehien harritu nauena. Edukazio falta da ezetz esatea eta horregatik harreman estukoei bakarrik esaten diete ezetz. Egoera xelebre break gertatzen dira jokaera horregatik, baina behin jendea ezagutzen gero, ezezko hori "irakurtzea" posible da.

Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Kuadrillakoekin txateatzen ez bada, Bilboko lagunekin aritzen gara aste bukaeran, hemen, Bangkok.



Laburrean:

Paisaia bat: Sorginetxe

Usain bat: kafearena

Zapore edo jaki bat: txuleta piperrekin

Gustuko dut... itsasoa

Ez dut gustuko... itxarotea

Amets bat:

opor luzeak izatea

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor?

Thailandieraz gain *isan* hizkuntza asko entzuten da. Thailandiera eta Laoseko hizkuntzaren arteko nahasketa da, bertako muga inguruetik etorritakoek hitz egiten dutena. Horrez gain, Txinako hizkuntza txiki asko ere erabiltzen dira, txinatar komunitate handia dagoelako bertan.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Familia eta lagunak ekarriko nituzke hona; nire bikotekidea eta bertako janaria eraman Debara.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Espero hemendik gutxira Debara bueltatzea, hori da plana.



Olga de Dios ilustratzaile eta idazle ezaguna ipuin kontalariekin batera

Aurten, zalantza askorekin, baina azkenean ipuin kontaketa zuzenean egiteko erabakia hartu genuen; hala ere, Ispiluen gelan egin beharrean, segurtasun-neurriak mantendu ahal izateko Ifar kaleko Luzaro eskolako patioa egokiagoa iruditu zitzaigun, eta azarotik aurrera bertan egin ditugu gure saioak.

Hilabete behin ipuin kontaketa saio bat eskaintzen dugu, eta adin tartetarak txandakatzen ditugu. Horrela 2-7 urte bitarteko haurren ipuin kontaketa igande eguerdian egiten ditugu (12:30ean) eta 7-12ra bitartekoekin, berriz, lehengo ordutegiari eutsi diogu (17:00etan).

Otsaileko saiorako sorpresa berezi bat izan dugu. Gure kide den Ane Bastida Lizasok gonbidatu berezi bat ekarri du Madrildik: Olga de Dios ilus-

tratzaile eta idazle ezaguna. Debako Kontalariok, oraingo honetan, bere ipuinak kontatu eta antzestu ditugu eta De Diosek bere ipuinetako pertsonaiak zuzenean marraztu ditu. Gure ikusleek euren margo sorta ekarri zuten, ipuin kontaketa amaieran proposatutako erronka burutzeko. Eta horien ekoizpenak eskolako patioan eskegi genituen ilustratzaileak egindako marrazki eder eta luzearen inguruan. Gainera, saioaren bukaeran, bere liburuak sinatzen aritu zen idazlea.

Debako Kontalariok Olga de Diosek azaldu duen eskuzabaltasuna eta gertuko jarrera eskertu nahi dugu. Plazer eta ohore bat izan da bera gure artean izatea. Beste kide baten gisan sentitu dugu. Eskerririk asko!

Debako Kontalariak



NAHIA EGUSKIZAGA

Ezetzta aukera

Esan daiteke azkenaldian EZ dela zure hitzik gogokoena, nahiz eta BAI izatea nahiagoko nukeen. Kontziente naiz, hala ere, EZ hori aldatzeko benetako arrazoi argiak eduki behar ditudala. Alde batetik, zuri azaltzeko proposatu dizudan horrek baduela bere izateko arrazoia eta hauxe zuri ondo arrazoitzeko (baita ni guztiz konbentzitura egoteko ere); beste alde batetik, zalantzarik ez izateko agindu/proposatu dizudan hori guztiz beharrezkoa dela justu momentu horretan.

Ez zait gustatzen arauak arau direlako bakarrik betetzea, zerbait gehiago behar dut: logika, helburuak, arrazoiak, eta arauak egin direnean gauza asko kontuan hartu izana... Alde ederra dago autoritatetik autoritarismora, ez dut zuk arauak obedientziagatik edo beldurragatik bakarrik betetzetik nahi, nahiago dut beste bide bat ikas dezazun: balioena, enpatiarena, elkartasunarena, kritikotasunarena, eztabaida eta elkarriketarena... Arauak/legeak... konbentzio sozialak dira, une eta leku jakin batean, pertsona talde batek, ustez, denon elkarbizitzaren hobe beharrez adostutakoak; aldatzen doaz, erlatiboak dira, beraz.

Egunero eskaintzen didazun ispiluan neure burua begiratu eta errebitsatu egiten badut; neuk gure elkarbizitzaren eta zure garapenaren onerako erabakitako arauak birpentsatzeko ariketa egiten ari banaiz; EZ esaten didazun bakoitzean zer behar duzun ulertzeko ariketa egiten baldin badut, denborarekin gauza bat ikas dezazun da: arauak/legeak eta justizia sarri ez datozela bat, eta batzuetan arauak apurtuz egiten dela justizia.



Zuri Goikoetxea

Berlinale Talents 2021en hautatuen artean

Pandemia baten erdian egonik ere, saretze, truke eta topaketarako lekua eraiki dute martxoaren 1etik 5era ospatu den Berlinale Talents-en, eta bertan izateko aukera izan du Zuri Goikoetxea (Zuriñe Goikoetxea) debarrak.

Berlineko Zinemaldiaren urteroko plataforma hau prestakuntza eta networking-ean interesa duten zinema diziplina anitzetako profesional sortu berriei zuzentzen zaie, baita proiektu-laborategiei ere.

"Dreams" lemapean ospatu da programa hau eta aukeratutako 200 talentuak eta publikoa zinemaren ametsetako munduak eta aukera

amaiezinak aurkeztu dituen foro birtual batera gonbidatu dituzte.

200 profesional horiek 3.000 eskabide baino gehiagoren artean aukeratu dituzte.



Deba eta Mutriku arteko zubia birgaitzeko lanak martxoaren amaieran hasiko dira

Harkaitz Millan Kultura diputatuak eman zuen lanaren berri, Gilen Garcia Debako alkatearekin eta Joseba Palenzuela Mutrikuko alkatearekin otsailaren 19an Donostian egindako agerraldian. Zubia birgaitzeko lanak martxoaren amaieran hasi eta urte bukaeran amaituko direla aurreikusten du Aldundiak.

Esku hartu duten alderdi guztien borondatea izan da zubia erabat zaharberritu arte egin beharreko jarduketak antolatzea eta Deba ibaiaren bi ertzetako bizilagunek oinezkoen erabilera normala izan dezaten martxan jartzea.

Horretarako, 2020ko urriaren 7an, erakunde arteko lankidetzaz-hitzarmena sinatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Debako eta Mutrikuko udalen artean, bi udalerririk lotzen dituen zubia erabat birgaitu arte egin beharreko jarduerak antolatzea eta zubia martxan jartzeko, Deba ibaiaren bi ertzetako bizilagunek normaltasunez erabili ahal izan dezaten.

Hitzarmenaren bidez, Aldundiak bere gain hartzen du larrialdi fasean zein birgaitze fase honetan egindako jarduera guztien kostu ekonomikoa. Guztira, 7.131.153,58 €, honela banakatuta: larrialdi fasea, 3.611.822,75 €; eta errehabilitazio fasea, 3.519.330,83 €.

Bi alkateen iritziz, bi herrietako bizilagunek biziki espero



Martin Lores

zuten albistea da hau, eta bizi dugun egoera zail honetan oso albiste ona da lan hauei ekitea, egunerokotasunean, Debako eta Mutrikuko bizilagunek bi udalerrietan egiten dituztelako jarduerak. Beren esanetan, garrantzitsua izan da zubiari konponbide teknikoa egitea ere, oinezkoek gurutzatu ahal izateko lanak burutu aurreko denbora tarte horretan.

Debako eta Mutrikuko udalak zubiaren titularrak dira % 50ean, Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekainaren 19an hartutako erabakiaren bidez egindako eskualdaketa onduz.

Hilerri berriaren erregelamendua onartu du Debako udalbatzak

Debako udalbatzak martxoaren 4an egindako ez-ohiko osoko bilkuran landutako gaien artean Artzabalen eraikitzen ari den hilerri berriaren erregimen eta funtzionamendurako araudia zegoen. Araudi hori onartu egin zen EH Bilduren (6 boto) eta Debarren Ahotsaren (4 boto) aldeko botoekin. EAJ-PNVk (3 boto) kontra bozkatu zuen.

Bertan jasotzen da, besteak beste, instalazioak nolakoak izango diren edota Udalak eta erabiltzaileek bete beharreko arau eta

irizpideak. Instalazioei dagokienean, zeremoniak egiteko omenaldien eta agurren gunea, bi beilatoki... izango ditu. Kanpoan, berriz, nitxoak, kolunbarioak, monumentuen gunea...

Gaiari lotuta Debarren Ahotsak mozioa aurkeztu zuen, hiru eskaera eginez: inauguraziorako data zehaztea, hilerri zaharretik berrirako aldaketa egiteko egutegia zehaztea eta herritarrei honen berri ematea. DAREN (4 boto) eta EAJ-PNVren (3 boto) aldeko botoekin eta EH Bilduren (6 boto) abstentzioarekin onartu zen.

iritzia



MAITE
RODRIGUEZ

Ia urtebete gabiltza COVID-a gora eta COVID-a behera. Urtebete eskuak etengabe garbitzen, musukoa ipintzen eta kentzen eta, ez tul edo doministiku egitean, ahoa eta sudurra estaltzen. Eztulari ez zaio normalean erantzunik ematen, baina doministikuari segituan "Jesus" batekin erantzuten diogu.

Doministiku izena latinezko "*Dominus tecum*" esapidetik dator (euskaraz Jauna zurekin), doministiku egitean hori esaten baitzaitzaion usinlariari. Beste hizkuntza askotan ere antzerako erantzunik ematen zaizkio. Normalean, osasuna opatzen dute hizkuntza batzuetan eta jaungoikoari errentzia egiten diote besteetan.

Doministiku egiterakoan egiten dugun soinua

ere herriz herri aldatzen da. Ikasitako soinu bat da, ez berezkoa. Euskaraz normalean *atxis* moduko bat egiten dugu, ingelesez *achoo*, kroazieraz *apcjh*, italieraz *etciú* eta japonieraz ハクション!

Doministikuari buruz hainbeste tontakeria nondik atera ditudan pentsatzen ari bazarete, hemen, Irlandan, hirugarren konfinamenduan gaudelako da. Behar-beharrezko dendak bakarrik daude zabalik, tabernek urtebete daramate itxita, eta etxetik ariketa fisikoa egitera bakarrik irten gaitzke. Hori bai, etxetik 5 km baino gehiago urrundu gabe. Etxekoak ez direnekin ezin gara elkartu eta urtebete gabiltza telelanean honezkero. Interneten bukaerara iristeko gutxi falta zaidala esango nuke.

Atxis! Jesus


Antiarrazismoa eta zaintza ardatz aurtengo M8ko egitarau oparoak

Emakumearen Egunaren inguruan hainbat mobilizazio antolatu dituzte Debako Udalak eta Talde Feministak fokua zaintzan eta jendarte arrazializatuan jarritz. Irudian ageri den martxoaren 8ko manifestazio jendetsua izan da horietako bat. Horiez gain, Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak adierazpen instituzional bana onartu dute.

Bestalde, liburutegiarekin elkarlanean, "Liburu eta ikus-entzunezko ez-sexisten gida helduentzat" argitaratu du Debako Udalak, duela hiru urte umeentzat osatutakoaren jarraipen gisa. Helburua herritarrei liburutegian dauden liburu zein ikus-entzunezko ez-sexisten berri ematea da, berdintasunaz kontzientzia hartzeko.



EAE barruan mugitu ahal izango gara, prebentzio-neurriak zainduz bada ere



Martxoaren 5ean bildu zen LABiren Aholku Batzordea eta dekretu berria onartu zuen; lau egunera sartu zen indarrean. Hona hemen zertan datzan:

Alde batetik, egokitu egin dira indarrean genituen neurri batzuk, horrela bada, erkidego barruan mugikortasuna ahalbidetzen da, inolako mugarik gabe; ezabatu egin da udalerriko murrizketak zehazteko 500etik gorako intzidentziaz tasa metatuaren erreferentzia; horretarako, kontuan izan da une horretan ez zegoela udalerririk ia erregistro horren gainetik. Azkenik, lan-eskaintza publikoen eta aisialdiko jardueren garapenerako bide emango duen ebazpena gehitu da.

Bestetik, indarrean jarraitzen duten neurriak hauexek dira: gehienez lau pertsonako taldeak; gaueko mugigarri-

tasunaren muga 22:00etatik 06:00etara; merkataritza- eta kultura-jarduerak eteteko ordua 21:00ak; % 40ko edukiera 150m²-tik gorako merkataritza-establimenduetan, eta % 60koa, 150m²ra artekoetan; edukiera murriztuak kultura- eta gizarte-ekitaldi guztietan; gehieneko eduki mugatua % 35ean kulturentroetan; eta azkenik, musika- eta ahots-entseguek eta emanaldiek bertan behera jarraitzea.

Neurri horiek indarrean jarraituko dute EAE egoera epidemiologiko egonkorragoan eta ziurtasun handiagokoan egon arte.

Aste Santuari dagokionez, berriz, Espainiako autonomia erkidegoak itxita egongo dira eta pertsonen zirkulazioa galarazita 22:00etatik 06:00etara bitartean. Hala erabaki zuten Osasun Ministerioak eta autonomia erkidegoetako agintariek martxoaren 4ko Osasun Publikoaren Batzordean.



MANEX ASTIGARRAGA

Zentzura!

Pablo Hasel musikaria atxilotu berri dute. Ezagunenetako bat da egun, baina ez da bakarra. Duela ez horrenbeste, Turkian gose greban hildako musikariak eta beste hainbat kasu ere bizi izan ditugu, tamalez. Hasel ez dute kartzelaratu bere letren edukia "gorrotozkoa" izateagatik, atxilotetaren data bertsuetan nazien alde borrokatzera joandakoak omentzeko eginiko esperpentoaren inpunitateak erakusten duen bezala. Hasel bere posizio ideologikorengatik epaitu dute, bere militantziarengatik. Ez dituzte bere letrak debekatu, bera debekatu dute, bere militantzia eta bere konbentzimendua, eta, bide batez, beste asko isilarazi dituzte zeharka, mehatxutat uler daitekeen epaiketa honen bidez.

Bitartean, Ertzaintzak Tubacex eta PCBko langileak zentsuratu ditu borraz. Zentsura indarkeriari hertsiki loturik baitago. Zehazki, boterea dutenen biolentziaren monopolioari eta horren aplikazioari. Borra, besoa eta burua gorpu beraren atalak dira ezinbestean. Bitartean, zapaltzen gaituztenen boterea zalantzan jarri ez baizik eta zilegi egiten buru-belarri dabiltzan alderdi instituzionalek polizia zurtzen dihardute, inolako lotsarik gabe, gainera.

Batzuk harritu egingo ziren, beste batzuek garrantzia kenduko diote, baina errealitatea da badirudiela naziak zer ziren ahantzi dugula, baita polizia zer den eta zertarako dagoen ere. Gaia pil-pilean egon berri den honetan, norberak epai dezala non gelditzen diren egun zentsura eta noizbait galdua dirudien zentzu hura.

“Oso garrantzitsua da kirol egokitu eta inklusiboa sustatzea, gizartea askoz adeitsuago bihurtzen delako”

Boccia: kirol ezezaguna gizartearen gehiengoarentzat; ez horrenbeste gure artean. Horren arrazoia Amagoia Arrieta, azken urteotan hainbeste argazkitan domina paparrean ikusi dugun 46 urteko emakume kirolaria. Bilbon jaio zen arren, 28 urte badira dagoeneko Arrieta Deban bizi dela. San Roketako txupinazoa botatzeko ere aukeratu zuten 2019an, herriak oso kuttun duen seinale. *Berriketan*-en ere merezi duen lekua egin nahi izan diogu, eta bertatik bertara jaso ditugu berak esanak, Arrietak oso adeitsu eman digu-eta horretarako bidea.



Has gaitezen zu pixka bat gehiago ezagutzen. Zein da Amagoia Arrieta?

46 urteko emakumea naiz. Bilbon jaio nintzen, otsailaren 10ean, baina 28 urte badira Deban bizi naizela. Irakurtzea eta musika entzutea gustuko ditut eta Bruce Springsteen-en jarraitzaile naiz.

Bocciako Espainiako txapeldun izan zara berriro Valladoliden 2020ko abenduaren 20an. Zer moduz sentitzen zara?

Egia esan txapelketa arraroa izan zen; COVID-19a dela eta ez zegoen jenderik harmailetan. Asebeteta sentitzen naiz urrezko domina lortu dudalako eta harrirtuta ere bai Debako jendeak egin didan harrera beroarekin.

Zer da boccia? Azalduko diguzu, mesedez, zertan oinarritzen den?

BISFEDek (Nazioarteko Boccia Federazioa) araututako kirola da, kiroldegietako kantxetan jokatzen dena. Antzinako Grezian sortu zen eta gaur egun kirol para-

linpikoa da 1984az geroztik. Petankaren antzekoa da, baina larruzko bolekin jokatzen denez askoz zehaztasun eta estrategia maila altuagoa eskatzen du; horregatik, adituek xakearekin alderatzen dute sarritan.

“Boccia petankaren antzekoa da, baina askoz zehaztasun eta estrategia maila altuagoa eskatzen du; horregatik, adituek xakearekin alderatzen dute sarritan”

Noiz hasi zinen kirol hau praktikatzen, eta zergatik?

Gasteizen 1997an jokatu zen Europako txapelketa bertatik bertara ikusi izanaren ondorioz hasi nintzen kirol honetan jokatzen. Asko gustatu zitzaidan, eta une horretan bertan erabaki nuen

aurrerantzean kirol honetan aritzea.

Donostiako Dordoka Kirol Elkartearekin lehiatzen zara normalean, baina Espainiako Selektioarekin lehiatzeko ere deitu izan dizute. Nola bizi dituzue esperientzia horiek?

Dordokarekin Euskadiko txapelketa eta Espainiako txapelketa jokatzen ditut. Espainiako Selektioarekin nazioarteko txapelketak jokatzen ditut. Nire entrenamendurako gauza bera dira biak. Beharrezko izaten dut nire aurkarien bideoak aztertzea (asko dira ezagutzen ez ditudanak) eta zelaiko zein eremutan jokatzen duten eta zein estrategia baliatzen dituzten jakitea...

Ordu askoko entrenamendua eskatzen al dizu kirol honek? Non aritzen zara?

Gutxi gorabehera zazpi ordu entrenatzen naiz astean boccian, bost ordu Deban eta bi Bergaran.

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

Nolakoa da, Amagoia, zure eguneroko bizitza?

Gustuko dut irakurtzea eta informatuta egotea. Asteazken, larunbat eta igandeetan entrenamendua izaten dut Debako kiroldegian, pote bat edo beste hartzeaz gain (baina mostoak bakarrik aulki elektrikoa erabiltzen dut eta). Ostegunetan, berriz, Bergaran entrenatzen naiz. Gainerakoan, astelehenetik ostiralera Arrasatera joaten naiz, ASPACEkoa naiz eta idazkari-lanak egiten ditut bertan.

Irakurri dugu giharrak lantzeaz gain kontzentrazioa, kalkulu espaziala eta lasaitasuna ere oso beharrezko direla.

Ondo irakurri duzue, bai. Hiru eragile horiek garrantzi handia dute, eta gainera lehiakortasuna ere gehituko nieke nik (aurkariari urik ere ez) eta, batez ere, errespetua guzti-guztietan, hobeak edo okerragoak izan daitezkeen kontuan hartu gabe. Kirol honetan edonork sar diezazuke bola irabazlea.

Hainbat aldiz urrezko domina Espainia eta Euskadi mailan, taldeka ere brontzea 2017an Sevillan jokatu zen munduko txapelketan. Hainbesteren artean sari kuttunenik baduzu?

Bakoitza bere garaian, baina denak dira bereziak niretzat. Agian, emoziorik handiena sortu didatenak 2019an Txekian irabazitako zilarrezko bi dominak (bakarka eta taldeka) izango dira.

Lehiatzeko galdetu dizugu, baina sumatzen da kirola baino askoz gehiago dela hau zuretzat. Zer garrantzi du zure bizitzan boccia-k?

Lehia-kirolak bizitza aldatzen dizu, beti ikasteko asko geratzen zaizula sentitzen duzulako, besterik gabe... Espetatiba berrietara irekitzen zaitu eta sekulako motibazioa da hori.



Kirol egokitua eta inklusioa sustatzea zer neurritan esango zenuke dela garrantzitsua?

Praktikatzen duenarentzat, lehen aipatu dizudanaren ildotik, oso garrantzitsua; gizarteari dagokionez, berriz, jauzi kulturala da, hura sustatzen duten gizarteak askoz errespetuzkoago bihurtzen direlako. Herrialde batzuetan, adibidez, kirol hauek entitate handia dute. Alemanian, Txekian edo Portugalen jokatzea sinestezina da...

Nahikoa diru-laguntza ba al dago kirol honentzat oro har? Bidaiak, alojamentua, materiala... laguntzarik ba al duzue?

Txapelketa nazionaletan Dordokak gastuaren zati bat laguntzen du diruz. Nazioartekoetan, berriz, Espainiako Selektzioak hartzen du gastu osoa bere gain.

Gizonezkoen aurka zabiltza askotan lehiatzen. Boccian ez da emakumezko askorik ikusten, ezta?

Boccian ez dago gizon eta emakumezkoen arteko bereizketarik. Oraindik kirolari gehiago dira gizonezkoak, baina aldea txikitzen doa denborarekin.

COVID-19ak mundua gelditu duen garaioan, hori asko igarri al da zuen kirolean?

Izugarri. Izan ere, nazioarteko txapelketa guztiak geldiarazi zituzte, eta espero dugu munduko txapelketarekin abian jartzea berriro uztailean, Povia de Varzim (Portugal) edo Montrealen (Kanada).

2021 honetan txapelketaren batean lehiatzeko asmorik bai?

Espero dugu uztailean hasi ahal izatea txapelketetan. Oraintxe egiten ari garena, hori bai, errendimendu handiko zentroetako topaketak dira (Granada, Sant Cugat...).

Haurren boccia txapelketak ere egiten dira. Nola animatuko zenituzke haur edo gaztetxoak kirol hau egiten hastera?

Edozein umek jokatu dezake kirol honetan. Lehiatzea dibertigarria da eta, gainera, aukeraz beteriko mundu berri bat zabaltzen zaizu.

Beste edozer gehitu nahiko bazenu hurrengo leerroak zureak dira, Amagoia.

Oso eskertua sentitzen naiz Debako kiroldegiarekin, pandemia osoan zehar entrenatzeko aukera eman baitit; baita Eibarko Kirol Elkartearekin, Kirolgi eta GKEFrekin (Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa) ere eta, nola ez, nire entrenatzaile Javi Camachorekin. Guztiak txapelketara behar besteko prestakuntzarekin iristen lagundu didate.

sasoiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknika (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

lensundj.14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Deba-Itziar

BIRA



OTSAILEKO BIRA | SARIDUNAK



Kontxi Mtz Uribarren
Leire Landa
Begoña Aizpurua
Naiara Larrañaga
Jordina Arnau



Nerea Lazkano
Eider Aldalur
Pablo Ron
Jone Txurruka
Iera Larrañaga

Maite Aizpurua
Oihana Esnaola
Iker Galarraga
Aurora Ampuero
Oihana Beristain

*Produktu sortak 2021/04/15 baino lehen jaso beharko dira, turismo bulegoan

MARTXOKO BIRA:



1. Noiz zabaldu zuten komunitate musulmanaren Pakea-Deba meskita eta kulturgunea?



2. Gerra Zibileko zein batailatan hil ziren Modesto Aspiazu Esnaola eta Juan Odriozola Basurto debarrak?



A) Intxortako frontean
B) Matxitxakoko itsas guduan
D) Areceseko batailan
E) Burdinazko gerrikoan



3. Zein poesia libururekin irabazi zuen Goizane Aizpurua Pasaia Hiria saria 2017an?



4. Nola deitzen zen Debako lehenengo futbol talde federatua?

A) Itxas-ertz
B) Amaiak bat
D) Or-Nauk
E) Lagun Artea



5. Debako zein kobazulotan aurkitu zen argazkian agertzen den duela 15.500 urteko venus formako lepokoa?



6. Non kokatzen da argazkiko etxe multzoa?

A) Santuaranen
B) Sasiolan
D) Itxaspen
E) Endoian

PARTE HARTZEKO:

www.labur.eus/BIRA_martxo

Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean

Parte hartzaile guztien artean

Aleix & Quim ehun-artistauen ondorengo produktuak banatuko dira:

-Kotoizko menta
-Kotoizko 2 kuxin handi

Aleix & Quim ehun-artistauen ondorengo produktuak zozketatuko dira:

-Kotoizko 2 kuxin txiki
-Kotoizko 5 otarre

Erantzunak bidaltzeko azken eguna: **apirilaren 7a**

Irabazleen izenak apirileko *Berriketan*-en argitaratuko dira. **Animatu!**

II. Zientzia Astea Luzaron, COVID-19 garaian

Nahiz eta aurten egoera berezi honetan egon, Zientzia Astea aurrera eramatea lortu dugu. Otsailaren 11tik 19ra bitartean, Luzaroko ikasleok zientziaz inguratzeko aukera bikaina izan dugu berriz

Emakume Zientzialarien Eguneak hasita, gurasoek emandako tailerretara arte, zientziaz gozatzeko ekitaldi desberdinak izan ditugu ikastetxean.

Otsailaren 11n, ikastetxe osoak, irudimena erabiliz, bakoitzarentzat zientzialari bat zer den marraztu genuen. Hortik ateratako ondorioa: zientzialari bat irudikatzean burura etortzen zaigun lehena, pelikuletan agertzen den zientzialari zoroa da, gizonezkoa gainera. Irudi hori ez da guztiz zuzena. Horrez gain, Emakume Zientzialarien Eguna zela kontuan hartuta, YouTubeko zuzeneko batera sartu ginen, LH4, LH5 eta LH6koak. Bertan, Maitane Alonso eta Valeria Corrales zientzialariak ezagutzeko aukera izan genuen, eta haiek zientziaren munduan nola sartu ziren kontatu zuten.

Hurrengo ostegun eta ostiralean, LHko ikasleok 3D inprimagailuaren azalpena jaso genuen Do Play enpresako langile baten eskutik. Plastikoa materialtzat erabiliz, itxura desberdineko formak egiteko gai zela erakutsi zigun. Egun berean, LH2 eta LH3koek izkira eta otarrainxken bizitzaren inguruko dokumental bat ikusi zuten. Ondoren, 3. mailakoek galderak prestatu eta bideo-deia izan zuten Thaiandiako haztegieta lanean dabilen



Txomin Azpeitia debarrarekin.

Ostiral arratsaldean, ikastetxeko hainbat guraso zientzialari hurbildu ziren borondatez zientziaz ikasteko tailerrak ematera.

Lehenengo mailakoek Josune Vaqueroekin erradiologia tailerra egin zuten; hainbat erradiografia ikuskatzen aritu ziren gure ikastetxeko txikienak. Bigarren mailakoek kimikari bihurtu ziren ordu batez Goizane Galindezekin; esperimenduak eginenez pasa zuten arratsaldea.

Hirugarren mailakoak, Maria Agirregabiriaren laguntzaz, magia zientifikoarekin jolastu ziren. Laugarren mai-

lan, baratzeako animalia eta landareak ikertu zituzten Gema Algorarekin.

Bosgarren mailan, berriz, argazkigintzaren bilakaera landu zuten, argazkien eta argazki-kameren eboluzioa aztertuz Nerea Allikarekin. Eta eskolako nagusienak etxeko sukaldeaz baliatu ziren kimikaz disfrutatzen, Ibon Aranberrirekin.

Itziarko eta Ifar kaleko ikasleek ere hainbat ekintza egin zituzten Zientzia Astean.

Haur Hezkuntzakoek, irakasleen laguntzarekin, elikagai eta material desberdinak manipulatu zituzten; batzuk ukituz, beste batzuk landatuz, baina betiere ondo pasatuz.

Itziarkoek, berriz, material polimeroak ezagutu eta desberdinu zituzten Eneritz Vesgarekin, eta Zigor Aizpuruarekin, aldiz, gorputz atalen inpresioa 3Dn landu zuten.

Oso ondo pasatu dugu Zientzia Astea, zientzia munduaren inguruan ikasteko aukera paregabea izan dugu.

Eta mila esker aste zoragarri honetan parte hartu duten guraso zein bestelako zientzialari guztiei. Berrito ere hurrengo urteari begira jarriak gara, espero dugu 2022 urtea hobea izatea.

Luzaro HLHI

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

ieraenea
"maite ditut nire/gure bazterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Tel: 943 53 95 20 - E-mail: ieraenea@gmail.com

k
kutxabank

A
D

ASESORIA DEBA
Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



Zuhatzakideek harrera beroa egin diote Errigoraren bigarren kanpainari

Martxoaren 4tik 24ra bitartean izan dute Zuhatza Euskara Elkarteko bazkideek Errigora herri ekimeneko produktuak eskatzeko epea zabalik. Gainera Bordatxon produktuen dastaketa ere izan zen. Bigarren kanpaina izan du hau Errigorak Deban; gabonetako saskiak izan ziren lehenengoan banatutakoak. Izan ere, Zuhatzarekin elkarlanean, banaketa-puntua dauka orain Errigorak Deban.

Mordotxoia izan dira eskaera egin duten bazkideak, kontuan hartuz euskara ofiziala ez den zonaldeetan euskalgintzari ekarpen ekonomiko garrantzitsua egiten dion ekimena dela, eta, gainera, produktuak ekoizlearen jatorrizko prezioan eskuratzeko aukera ematen duela.

Ismene Salegik eta Irea Rodríguezek irabazi dituzte Apakin taldeak zozketatutako sariak



Apakin guraso taldeak bere bidea egiten jarraitzen du. Urtarrilean eta otsailean bideo bana zabaldu zuten gurasoen artean: bata, haurrari eskolaz kanpo euskara erabiltzeko aukerak ematea proposatzen zuena; bestea, lagunartean euskara erabil dezaten, gurasoek nola lagundu dezaketen azaltzen zuena.

Jakinaenez, Apakin guraso taldeak zozketatxo bat egiten du bideoekin batera banatzen diren galdera sortak



erantzuten dituzten gurasoen artean. Urtarrilean, Ismene Salegi izan zen sariduna (pare bat mahai-joko, ipuin bat eta komiki-liburu bat eskuratu zituen); eta otsailekoan, berriz, Irea Rodríguezek eraman zuen saria (Ipar surf eta skate eskolaren laguntza, familiarentzako ikastaroa).

Guraso taldeak martxoan banatuko du euskararen erabilera zabaltzeko aukerak azaltzen dituen laugarren bideoa.



Landaola saria Joxe Landarentzat

Urteetako Ibilbidearen saria Joxe Landak irabazi du aurten banatutako IV. Landaola sarietan. Azken urteotan eguraldi gizon gisa ezagun egin da Landa hainbat komunikabidetan egiten dituen kolaborazioengatik, baina lehen sektorean hainbat kooperatiba eta erakunderen sorreran ibilitakoa da; Itziarko Ineko kooperatiba, Gurelesa, EHNE eta Lurgintza daude horien artean. Kooperatiba eta nekazaritza arloetan egindako lanagatik saritu dute, hain justu, orainoan.

OTSAILEKO
ZOZKETA
IRABAZLEA:
KAULDI AROSTEGI
ROTTEN XIII
PUNK-ROCK TALDEAREN
MATERIALA

Zuhatza euskara elkarte

MARTXOKO
ZOZKETA
ZUHATZAKO BAZKIDEEN ARTEAN

ALBOKA + **SAGARMIÑA TXAKOLINA**
FOLK TALDEAREN "LAU ANAIK" DISKOA 3 BOTILA

ZOZKETA EGUNA:
MARTXOAK 26, OSTIRALA
FACEBOOK BIDEZ

Zuhatza euskara elkarte

EUSKERAZ BAGERA!

ZERGATIK ZARA ZUHATZA EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE?



MAITE ESNAOLA

28 urte

Euskaraz aritzen den aldizkari bat herrian izatea garrantzitsua dela uste dut euskararen erabilera indartu eta bermatzeko. Euskarak euskaraz hitz egiten duen jendearen bultzada behar du, eta nik nire herrian euskaraz bizi nahi dudanez, nire bidea egiteko urrats bat dela uste dut. Herrian euskarazko ekintzak egotea ere nahi dut, eta herriak sortu duen elkarte bati babesa emateko nire modua da bazkide izatea. Zenbat eta ekimen gehiago egon herrian, orduan eta aberatsagoa delako herria.

JOSETXO RAMIREZ

49 urte

Debako Zuhatza Euskara Elkartean bere garaian, orain dela urte mordotxo, egin nintzen bazkide ikusi nuelako Deban euskara bultzatzeko taldea beharrezko zela, beste herri batzuek ere beharra ikusi eta sortu zuten bezala. Orain ikusten da elkartearen inguruan jendeak lan egin duela bere fruituak ematen ari da eta! Egun, proiektu hau Deban oso zabalduta dagoela iruditzen zait, eta lehen baino azkoz jende gehiagok hartzen duela parte.



ITZIAR ARANBERRI

67 urte

Gure herrian euskarari bultzada emateko beharra zegoela ikusten nuen, eta jakin nuenean Deban talde bat zegoela euskarazko hilabetekaria kaleratzeko prest, bazkide izateko izena eman nuen.

Ez dut damurik... ekintza ezberdinetan jarduten dira eta biziki eskertzen dut adibidez AEKri testigua hartu izana Deban Korrika antolatzen. Horrez gain, izugarri gozaten dut Kolore Anitzek ume kuadrilla hartu eta pirata jantzita herria zeharkatzen duenean, eta nola ez, eskertzen dut benetan *Berriketan*-en bitartez nire ingurutik at gertatzen direnak jakitea... Jarraitu horrela!

JULEN ALTZIBAR



29 urte

Umea nintzenetik gogoratzen dut aldizkaria irakurtzen dudala, garai hartan ere gure esparrua izaten baikenuen bertan. Gaurko egunean ere etxean izaten dut hilabetero eta etorkizunean ere horrela izatea espero dut. Hainbat urtean horrenbeste ekimen kultural, hain maitea dugun Euskal Jaia, udalekuak, zozketak... Gure historiaren parte den elkarte honek betetzen duen zerbitzua ezinbestekoa da gure kultura eta nortasuna bermatzeko. Horregatik, galdera honi buelta eman nahi nioke, zergatik ez zara oraindik Zuhatza Euskara Elkarteko bazkide?





PRIDE HARROTASUNA



Pride (harrotasuna euskaraz) 2014 urtean Ingalaterrako Matthew Warchus zinema zuzendariak zuzendutako drama eta komediazko filma da. Bertan, besteak beste, Bill Nighy, Imelda Staunton, Dominic West, Paddy

Considine, Andrew Scott, George MacKay, Joseph Gilgun, Ben Schnetzer eta Menna Trussler aktoreek parte hartzen dute.

Oihartzun handia izan du azken urteotan eta oraindik ere ez du gaurkotasunik galdu.

Finean hauxe da filmak oinarri duen istorioak kontatzen duena:

LGTBI kolektiboaren eskubideak babesten dituzten zenbait lagunek meatzari talde bati laguntzea erabakitzen dute. Izan ere, 1984. urtean, Erresuma Batuan, krisiaren ondorioz, meatzaritza egoera larrian dago eta meatzariek grebari ekiten diote.

Egoera ikusita, Lesbianek eta Gayek Meatzariak Babesten Ditzute taldea sortu eta aurrera egiteko laguntza izugarria ematen dute. Hala ere, meatzari guztiek ez dute taldekoen laguntza jaso nahi eta hor egongo da gatazkaririk handiena.

Gure iritziz, film honek balio positibo eta egokiak erakusten ditu. Horrez gain, aktoreek oso ondo antzezten dute, eta era egokian azaleratzen da egoera. Azkenean, benetako istorio batean oinarrituta egoteak xarma berezia ematen dio eta interesgarriago izatea lortzen du.



Prentsa tailerra 2020-2021

Maren Aramburu, Ekaitz Aperribai, Ainhoa Loidi, Maddi Txurruka, Adur Aramburu, Unai Portero, Enara Oruesagasti, Julene Perez, Jon Etxeberria, Malen Formariz, Oier Becerra, Oinatz Urbieta, Josu Corrius, Xabi Arakistain eta Sara Osa.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzaileak:




babestleak:



EMAKUMEAREN ZAPALKUNTZAREN AURPEGIAK

Gaur egun oraindik ere gizarteko esparru ezberdinetan ikus dezakegu emakumearen aurkako zapalkuntza eta Martxoaren 8an ere hori salatzea izan dugu helburu. Egoera hori azaleratu nahi izan dugu argazkion bitartez:



Esan ezetz genero indarkeriari!



Txikitatik ezartzen dizkigute estereotipoak




Talentua ez da genero kontua



Lan berdina egiten dute; zergatik soldata baxuagoa?



Konfinamenduan ere emakumea biktima



Nor da beti garbitzen duena?



Denon ardura da adinekoak zaintzea



Gaztetatik garamatzate lanbide ezberdinetara



Emakumeak leku orotan egon behar dira lanean?



Berdin da fardela neskak edo mutilak aldatu



Beldarrak tximeleta bilakatuko ditugu, aske izateko

DENBORA-PASAK

A	B	D	F	R	G	I	J	K	L	M	O	S	C	K
F	L	E	G	O	M	A	T	N	E	Z	I	B	A	O
I	S	N	R	S	L	M	N	G	U	T	U	R	T	P
F	T	M	D	A	Y	Y	R	B	G	R	M	Q	E	T
A	Y	W	E	R	H	G	N	E	H	E	Y	E	I	E
S	U	E	T	I	I	L	T	H	L	Z	D	O	R	L
V	O	I	U	O	G	L	S	E	A	X	F	L	R	Z
W	P	T	R	A	H	T	J	K	W	D	V	B	A	X
J	A	F	T	R	E	A	N	Q	U	O	J	T	A	U
H	S	H	L	T	I	F	N	B	T	W	Q	R	D	I
Y	J	A	S	O	N	E	O	S	O	R	O	Q	N	Ñ
Ñ	D	J	T	L	W	V	M	Y	E	M	Ñ	P	A	Q
F	F	K	E	A	R	C	M	U	Y	Q	N	M	L	I
H	G	O	E	Q	W	Q	Q	I	W	Z	K	O	O	Z
R	H	P	G	Z	Q	C	H	U	Q	E	W	Q	Y	X



Aurkitu itzazu ondorengo bost euskal emakume idazleen izenak

HIZKI-ZOPA:
EUSKAL
EMAKUME
IDAZLEAK

- Bizenta Mogel
- Jasone Osoro
- Yolanda Arrieta
- Rosario Artola
- Karmele Jaio

MARTXOAK 28, IGANDEA

-12:00. **Ipuin kontaketa** Debako Kontalarien eskutik, Itziarko Burugorriin.

APIRILAK 4, IGANDEA

-11:30. **Irteera gidatua:** Debatik Zumaiaira itsasontziz. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

APIRILAK 4, IGANDEA



-12:15. **Bisita gidatua** Debako Santa Maria elizara (gaztelaniaz). Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

APIRILAK 7, ASTEAZKENA

-10:00. **Bisita gidatua** Debako Santa Maria elizara (euskaraz eta gaztelaniaz). Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

APIRILAK 18, IGANDEA

-12:30. **Bisita gidatua** Debako Santa Maria elizara (gaztelaniaz). Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

APIRILAK 19, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea** pentsio duinen alde, Foruen plazan (apirilako lehenengo astelehenean jai denez, ez da elkarretaratzerik izango).

Animadeba 2021

-Zabalik dago Animadeba 2021 Nazioarteko Animazio Zinemaldian izena emateko epea. Maiatzaren 4ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak. Informazio gehiagorako: www.animadeba.com.

Ordutegi berezia liburutegian

-Ohiko funtzionatzeko modua berreskuratu du Ostolaza Udal Liburutegiak. Ohiko ordutegia izango du martxoaren 29, 30 eta 31n, baina ordutegi berezia izango du apirilaren 6, 7, 8 eta 9an. Liburutegi orokorra 9:00etatik 14:00etara egongo da zabalik eta Haur/Gazte liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00etara. Osasun egoeratik ezarritako protokoloa bete beharko da.

KZgunea

-KZgunea YouTubeko hitzaldiekin eta ikastaroekin jarraitzen du. Martxoan arratsaldean egongo da zabalik eta apirilean goizez. Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo www.kzgunea.eus.

Gazteen euskal topaketak

-Udalerrri euskaldunetako gazteentzako topaketak ekainaren 28tik uztailaren 4ra izango dira aurten, eta UEMAK zabaldu du dagoeneko izena emateko epea. Aurten ere ibiltaria izango da ekimena, Zumaiaitik Lekeitiora. Gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziaztea eta eragile aktibo bihurtzea da topaketen helburua. Martxoaren 31n amaitzen da izen-ematea. Informazio gehiagorako: <https://labur.eus/tc8QH>.



ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **martxoak 26, 27, 28, apirilak 5, 6, 7, 8.**

Burgoa Zuazo: **martxoak 22, 23, 24, 25, apirilak 9, 10, 11.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: apirilak 3 eta 10

BURGOA ZUAZO: martxoak 20 eta 27

9:30 - 13:00

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383

berriketan@zuhatza.com

LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN

Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12



Edukiontzian horien EZ bota plastikoz egindako edozer gauza
ONTZI ARINAK BAKARRIK

Azken hilabeteetan, edukiontzian hondakin desegoki ugari atzeman dira eta horrek arazoak eragin ditu birziklatze-prozesuan.



Plastikozko eta beste materialetako objektuak

Etxeko tresneria, tupperak, txartelak, lonak...

Garbitasun pertsonaleko produktuak

Eskola eta ofinako materialak

Iraungitako sendagaiak eta ontziak

Tresna elektronikoa eta kableak



ONTZI ARINAK BAKARRIK
plastikozkoak, latak eta brikak





CONSERVAS
YURRITA
1867
GASTRONOMIKA

YURRITA PRODUKTUEN ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALAK
Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea,
eta bestelako gourmet produktuak.



Sarean erosi:

www.yurritagastronomika.com



Zuzeneko salmenta, ohiko ordutegia

Astelehenetik-ostiralera: 10:00-13:00. Larunbata: 09:30-13:30.

Aste Santuetako ordutegi berezia

Martxoak 29, 30, 31 eta apirilak 6,7,8,9: 10:00-13:00 eta 17:00-19:00.

Apirilak 3 eta 10 (larunbata): 09:30-13:30.

Casa Mauleon Etxea

CTRA. A, 20830 Ondarroa, SS



[Ampliar el mapa](#)

Debatik nola iritsi:

Ondarroaranzko errepidea z/g
(GI-638, 58. km). Yurrita Group enpresaren
aurrean, errepidearen beste aldean.



Google Mapsen Casa Mauleon Etxea
edo Yurrita Group jarri.

GI-638

GI-638

GI-638

Casa Mauleon Etxea